

416 zenbakia, 2000ko ekainaren 30a  
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara

## Etxebizitzak Bergaran

Bi urtetan 400 etxe egin dira  
eta 700 zahar hutsik daude



**BERRIA GARAJEA**

Erakusketa eta tailerra

Amillaga 49, Bergara.

943 76 22 43 / 24 43. 617 081 189



Mekanika  
Elektrizitatea  
Karrozzeria

## IPINTZA INSTITUTUA

### Batxilergo modalitateak

Teknologikoa  
Giza eta gizarte zientziak  
Natur eta osasun zientziak



## M. ALTUNA INSTITUTUA



### Goi mailako prestakuntza zikloak

Administrazio eta finantzak  
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak  
Mekanizazio bidezko produkzioa  
Proiektu mekanikoen garapena  
Plastiko eta kautxugintza

### Erdi mailako prestakuntza zikloak

Mekanizazioa  
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak  
Administrarritza kudeaketa

**Ohiko matrikula epea: uztailaren 3tik 7ra**

Ordutegia Ipintza institutuan:

09:00etatik 13:00era. 943 76 31 42

Ordutegia M. Altuna institutuan:

09:00etatik 13:00era. 943 76 24 91 / 38 40



**SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA**

Bergarako ikastetxe publikoak



# Etikaren politika edo politikaren etika

Joxe Lazkano / Irakaslea

Udia ailegau jaku eta holakuetan badakizue, notak jartzeko denboria izaten da. Banaka batzuk aprobau dabe ikasturtia eta prest dare datorrenai ondo heltzeko, baina beste askok eta askok sekulako suspensua etara dabe, zero patatero; eta klaro, hola ezin da, oso zaila da aurrera egitea.

Urtian mila miloi kobratzen daben jokalaria batek penalti bat kale egiten badau errua zeinena da? Jokalaria? Taldiana? Entrenatzailea? Zailena? Jokalaria zertarako dare ondo jokatu eta golak sartzeko ez bada. Politikuak zertarako dare, arazuak konpondu eta irtenbidiak emateko ez bada.

Beraz, aurtengo suspensioik haundiena eta merezimendu osoz partidu politikuak merezi dabe; eta hauen artian batez be euren burua behin eta berriro, aspertu barik, partidu politiko demokratiko moduan aurkezten dabe-

nak, indarkeria bat, eta ez besteik, har-tuz arazo bakar eta nagusizat.

Zenbat eta zenbat aldiz entzun bihar izaten dogu demokratikuak ei dien demokraten ahotik eurak diela benetako demokratak eta beste danak gizarte demokratiko honetan lekuik ez daukagun biolento, arrazista, intoleran-

*"Aurtengo suspensioik haundiena eta merezimendu osoz partidu politikuak merezi dabe; eta hauen artian batez be euren burua behin eta berriro, aspertu barik, partidu politiko demokratiko moduan aurkezten dabena"*

te eta egia eta arrazoi bakarraren sistemaren kontrako jendilajia.

Badakigu demokraziak herriai aitor-tzen dotsala gizarte antolatzeko eta garatzeko ahalmena, baina ez dakitxetena da dakigun non hasten eta bukatzen dan politikuen zeregina, herria egiten dabela edo salbatzen dabela esaten daben politiko demokratikuen zeregina.

Penaltian baloia kanpora botatzian errua zeinena da? Mayor Orejana? Gobernuana? Aznarrena? Ala lau urtian behin demokraziaik zuzenena dala-kuan botua emutera joaten dienena?

Sasipolitikarien lana suspenditzeko arrazoiak asko die eta ez die berriak, baina urtiak jua eta urtiak etorri gero eta argiago ikusten da doktrina politiko "demokratikoaren" usteltze prozesua oso oso larria dala.<

## barruan



**Joxean Iñarra**

Defentsa pertsonaleko irakaslea

*"Emakumeek euren burua babesteko nahiko da lau edo bost teknika jakitea"*

8.



**Jasone Larrañaga**

Nesken futbol taldekoa

*"Etxean denok izan gara kirolzaleak eta amak animatuta hasi nintzen futboleant"*

21.



**J. Kruz Azkarate**

Langilea

*"Hamalau urte daroiat San Martzial eguneko prozesioan gurutzea eroaten"*

29.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK



## BEKAK

### Leonardo da Vinci.

Confebask. 28 urte berako unibertsitario edo titulatu berriak. Lan esperientzia gabekoak. Atzerriko enpresatan praktikak. Epea: uztailak 14.

### Espezializazioa atzerrian.

Eusko Jaurlaritzan. Unibertsitateko goi mailako tituludunentzat. Atzerrian espezializazio ikasketak egiteko laguntzak. Epea: uztailak 19.

## EKITALDIK

### Udalekuak.

Gipuzkoako Foru Aldundia. Tokia dagoenez, honako udalekuen izena emateko epea luzatu da: 7/8 urtekoentzat Zornotzan eta Zarautzen; 12/13 urtekoentzat Hondarribian eta La Arboleand.

### Ingelesa Seguran.

Gipuzkoako Foru Aldundia. Segurako aterpetxean ingelesa ikasteko egonaldia. Izena emateko epea luzatu egin da. 14/17 urte bitartekoentzat, abuztuan.

## IKASTAROK

### Bizi garen espazioaren bilakaera.

Arteleku. Gaiarekin zerikusia duten ikasketak egiten ari diren edo egin dituztenentzat. Abuztuaren 23tik irailaren 29ra. Epea: uztailak 15.

## SARIAK

### Laburmetraien gidoiak.

Zarauzko Laburki Taldea. 15 minutu baino gutxiagoko iraupena duten filmen gidoiak aurkeztuko dira. Saria: dirua eta laburmetraia filmatzeko aukera. Epea: uztailak 23.

## LAN ESKAINTZAK

### Administrarria.

Mutiloako Udala. Goi-batxilerr, LH 2 edo titulazio baliokidea. Egun erdiko jarduna. Epea: uztailak 10.

### Liburutegiko Laguntzailea.

Antzuolako Udala. Goi-batxilerr, LH 2 edo titulazio baliokidea. Egun erdiko jarduna. Egun osoko jardunerako lehiaketa. Epea: uztailak 5.

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

## INFORMAZIO GEHIAGO:

### BERGARAKO GAZTE

### INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea)

TELEFONOA: 943 77 91 57.

E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net

Ordutegia uztailaren 6tik irailaren 2ra:

Osteguna: 09:00-23:00 eta 16:00-20:00

Ostirala: 09:00-13:00

Abuztuko 2., 3. eta 4. astean, itxita

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresari eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate  
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 22</b>	13	10	3,2	19	15	-
<b>Eguakitza 23</b>	14	11	1,3	18	13	0,3
<b>Zapatua 24</b>	15	9	-	20	14	-
<b>Domeka 25</b>	19	9	-	27	10	-
<b>Astelehena 26</b>	23	13	17,2	32	12	42,1
<b>Martitzena 27</b>	23,5	13,5	-	28	15	-
<b>Eguaztena 28</b>	20	11	-	25	12	-

## Amaitu dira emanaldiak



Goiena Telebista ez da Bergaran ikusiko aste honetatik aurrera. Orain dela hiru bat aste planteatu zen behin behineko irtenbideari esker, herriko hainbat etxetan ikus ahal izan duzue GOITB. Aurrerantzean, ordea, Bergarako Udalak Goiena egitasmoa onartu arte ez dugu bai-larako telebista herrian ikusiko. Erabakia, hortaz, Udalaren eskuetan dago. Espero dezagun, Bergarako Udalak erabaki bat lehenbailehen hartzea eta Leintz aldeko herrietan bezala Goiena Telebista Bergaran ere ikusi ahal izatea. Jardun elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Zaiazko elektronika dendari, egun hauetan telebista Bergaran ikusteko egindako ahaleginarengatik.

Hurrengo alean,  
uztailaren 7tik uztailaren 13ra  
bitartekoan zorion agurrak  
argitaratuko ditugu.

## Farmaziak

### Eguakitza 30:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Zapatua 1:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Domeka 2:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Astelehena 3:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Martitzena 4:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Eguaztena 5:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Eguena 6:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

## Ogia

**Domeka 2:** Ogizun.

## zorion agurrak



**Libe San Miguel**  
30ean 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Maialen Leturia**  
2an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Lorea Vicente**  
30ean 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Asier Muñoz**  
1ean urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Mikel Agirrezabal**  
Sean 36 urte.  
Urte askotarako!  
Nerea.



**Ane Kortabarria**  
2an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Iker Beistegi**  
2an 31 urte.  
Urte askotarako!  
Besoetakoa.



**Ibon Arrieta**  
1ean 31 urte.  
Urte askotarako!  
Besoetakoa.



**Ander Elizburu**  
3an 11 urte.  
Urte askotarako!  
Aitor eta Miren.




**Jesus Matilla**  
6an 31 urte.  
Urte askotarako!  
Belit Arrieta.



**Mireia Gallastegi**  
2an 31 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Piti.



**Aritz Uribesalgo**  
1ean 25 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Eider.



**Iker Gil**  
2an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak eta lagunak.



**Oihana Garate**  
3an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Maitane.



**Miriam Moreno**  
4an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Christian anaia.



**Miren Arroio**  
2an 11 urte.  
Urte askotarako!  
Erik, Amaia eta Mikel.



**Jon Loidi**  
Sean 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Gorka Markez**  
5ean urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Julen, Elisa eta Mikel.

URTEURRENA

Martin  
Zabaleta Larrea

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailak 2, goizeko 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Asuntxi  
Arostegi Navas

Bergaran hil zen 2000ko ekainaren 23an, 81 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Fernando  
Santamaria Franco

Arrasaten hil zen 2000ko ekainaren 26an, 37 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Enrique  
Lete Aldazabal

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailak 2, eguerdiko 13:00ean, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKELA

Fernando  
Santamaria Franco

Bergarako Udal Euskaltegiko ikaslea

*Zu ezagutu izanaren poza eta zure agurraren tristura gure oroimenean betiko.*



Begarako Udal Euskaltegia



ESKER ONA

Basilisa  
Candamio Fernandez

Bergaran hil zen 2000ko ekainaren 25ean, 90 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Benita  
Zenitagoia Belar

Bergaran hil zen 2000ko ekainaren 26an, 80 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko sendikoen izenean.*

jaiotakoak

**BERGARA**  
Maddi Aranzabal Lete  
Ekainak 14  
Mikel Alberdi Eguren  
Ekainak 18  
Jon Gantxegi Mazorriaga  
Ekainak 20  
Markel Dominguez Barquero  
Ekainak 21  
Aitor Gallastegi Borreguero  
Ekainak 22

hildakoak

**BERGARA**  
Asuncion Arostegi Navas  
Ekainak 23, 81 urte  
Basilisa Candamio Fernandez  
Ekainak 25, 90 urte  
Martin Lete Urdangarin  
Ekainak 25, 54 urte  
Benita Zenitagoia Belar  
Ekainak 26, 80 urte  
Fernando Santamaria Franco  
Ekainak 26, 37 urte  
**ANTZUOLA**  
Prudencio Aranburu Intxausti  
Ekainak 22, 86 urte

## MUSIKA

► **Electric Frankenstein, Rip KC, The Studebakers** eta **The Hot Dogs** taldeak bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.

► **6 am** taldearen jazz kontzertua eguenean, hilak 6, 22:00etan Espoloiari.

► **Anestesia** eta **Eraso** taldeak gaur, eguakitzan, gauerdian Elgetako Gaztetxean. Bihar, zapatua, ordu eta toki berean, **EH Sukarra eta Kafka**.

## ERAKUSKETA

► **Ione Telleriaren** margoak Nahikari tabernan.

## LEHIAKETAK

► **Arrasateko komiki ez sexisten III. lehiaketa.** Lanak 17x24 cm-ko edo proportzio bereko formato bertikalean aurkeztuko dira eta bitik lau orri bitarte hartuko dituzte. Testuak euskaraz zein gaztelez aurkez daitezke. Irabazleak 90.000 pezetako saria eskuratuko du. Lanak aurkezteko epea uztaillaren 21ean bukatuko da. Argibide gehiago 943 79 09 00 zenbakian.

► **VI. Baleike komiki lehiaketa.** Lehiaketan 14 urtetik gorakoek har dezakete parte. Pertsonaiak jatorrizkoak eta

## ERAKUSKETA

### Zeramika lanak

• Kultur Etxean, domekara arte

Joan zen eguakitzean zabaldu zen Kultur Etxean Simon Arrieta zeramika taldearen erakusketa. Bertan German Amurrio, Arantzazu Askasibar, Idoia Etxarri, Eneida Larrañaga, Nerea Madariaga, Maria Jesus Manzisidor, Maribi Peña eta Jabier Ugalderen lanak daude ikusgai domekara arte, uztaillak 2. Simon Arrieta zeramika tailerra duela 20 urte inguru sortu zen, eta gaur egun goian aipatutakoak dira, erregulariki, astero, eskulanak egiten aritzen direnak, nahiz eta taldeak bazkide gehiago izan.

Maria Jesus Manzisidor, Maribi Peña eta Javier Ugalde dira taldean denbora gehien daramatzatenak. Oraingo erakusketan urtean zehar egindako hainbat lan erakusten dituzte, 20 lan inguru. Buztina-ekin egindako lanak dira, batzuk margo plastikoekin apaindutakoak eta beste batzuk, aldiz, oxidoekin.

Erakusketaren helburuetako bat talde-

ren lana ezagutzera ematea da. Nerea Madariagak 6 urte daramatza Simon Arrieta zeramika taldean, eta berak esan digunez, "jende asko dago taldea existitzen denik ere ez dakiena. Beraz, horrelako erakusketak jendearengana heltzeko modu bat izan daitezke, nahiz eta Bergaran erakusketetara joateko ohitura handirik ez egon". Urritik aurrera ikastaro bat antolatzeko asmoa daukate, "gauza berriak ikaste aldera, buztina kristala edo egurrekin zela konbinatu esaterako. Era berean, gure Zabalotegiko tailerra urte guztian herri-tarrei zabaldu nahi diegu. Oraintsu lokala berriztu dugu eta interesgarria litzateke bertan erakusketa iraunkorra egotea eta taldean jende berria sartzen joatea". Erakusketa domekara arte egongo da zabalik.



Idoia Etxarri, Javier Ugalde, Maribi Peña eta Nerea Madariaga.

argitaratu gabeak izango dira. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokionez, A-4 neurriko 2 orrialde edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak. Lanak uztaillaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dira. Irabazleak 50.000 pezeta jasoko du eta 30.000

pezetako bigarren sari bat egongo da. Argibideak 943 86 10 56 zenbakian.

Kultur Etxean uztailean, goizez. Plaza mugatuak. Argibideak: 943 77 91 58 eta 943 75 20 51.

## IKASTAROAK

► **Audioko** oinarrizko ikastaroa emango da Bergarako

## DEIAK

► **San Joxepe.** Butroeko gaztelua eta Plentzia bisitatze-

### Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59

## IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

ra joateko egun osoko irteera uztailaren 12an. Izen-ematea (3.800 pezeta) uztailaren 10era arte zabalik.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, uztailak 5, 18:30ean, Seminarioko lokalean.

► **Kilometroak 2000.** Azpeitiko Ikas Berri ikastolak urriaren 1ean ospatuko den Kilometroak 2000ko arropak eta konplementuak salgai jarri ditu Barrenkalean (lehengo Kutxan) zabalduko denda.

► **III. Euskal Herriko kamiseta azoka** Ondarroako alde zaharrean bihar, zapatua, 12:00etatik 20:00etara.

► **Aizkorriko lagun eguna** domekan Zegaman. Goizeko 7:00etan Aizkorria irteera egingo da Udaletxe aurreko plazatik, 11:00etan San Adrianen meza izango da eta Pako Iriondo Euskadiko Mendi Federazioko presidenteari omenaldia egingo zaio 14:00etan. Ondoren, 15:00etan, anaiarteko bazkaria egingo da Kiroldegian. Argibide gehiago jasotzeko eta izena emateko, deitu 943 80 13 51 zenbakira.

## OHARRAK

► **Monja Zaharretako meza.** Uztailetik aurrera eta irailaren erdialdera arte astebarruko meza goizeko 7:30ean izango dira eta domeka eta jaiegunetan 18:00etan.

► **Trasteak biltzeko kamioia** hileko lehen eguaztenean pasatzen da. Beraz, trasteak goizeko 8ak baino lehen atera beharko dira zabor guneetara. Erdigunetik kanpoko auzoek, bezperan eguerdiko ordubata baino lehen abisua utzi behar dute Udaltzaingoa (943 77 91 06) kamioia bertatik pasatzeko.

## JAIAK

► **Elgetako jaiak:** bihar, zapatua, 11:00etan Intxortara igoera, 16:30ean haurrendako play-back lehiaketa, 19:30ean zezenak eta pottokak, 23:00etan tanborrada, gauerdian bolo txapelketa eta ordu berean Soneros del Changüi talde kubatarrarekin dantzaldia. Domekan, hilak 2, ganadu, baserriko makineria eta burdingo azoka zabalduko da 9:00etan, 16:30ean lau t'erdiko pilota txapelketaren finalak izango dira, eta 18:00etan dantza erakustaldia izango da. Gauean, 21:30ean, sardina-jan herrikoia eta jaietako bukaera emateko musika, akrobaziak, malabarrak eta zankoez osatutako ikuskizuna.

## KINTADAK

► **1971n jaiotako** Aranazdi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen afaria uztailaren 15ean Txuriongan. Izen-ematea (2.500) pezeta uztailaren 6ra arte Kutxan irekitako kontu korrontean egin beharko da.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

**Pitch black**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### ARRASATE. Alai zinema

**Ojos que te acechan**  
Eguakitza: 22:00.  
**Soñe con Africa**  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

**Campo de batalla: la tierra**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

**Stuart little**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

**Stigmata**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

#### OÑATI. Santana

**Gigolo**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

#### AZKOITIA. Baztartxo

**Fuego**  
Eguakitza: 22:00.  
**Pitch black**  
Zapatua: 22:00.  
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.




#### PITCH BLACK

**Zuzendaria:** David Twohy.  
**Aktoreak:** Vin Diesel, Radha Mitchell. =13 urte  
Preso arriskutsua daraman espaziontzi batek larrialdiko lurrartzea egin du planeta batean. Pilotuak eta poliziaak bat egin beharko dute bizirik irautea nahi badute behintzat. Efektu berezi aipagarriekin errodututako filmea da Pitch black.

#### CAMPO DE BATALLA: LA TIERRA

**Zuzendaria:** Robin Christian.  
**Aktoreak:** John Travolta, Barry Pepper. =13 urte  
Travolta ezagunak 3000. urtean girotutako zientzia fikziozko filmea errodatu du oraingoan. Aurreko milurtean estralurtarrak lurraren jabe egin zirenetik, gizakia desagertze dago, eta ez dago ez herrialderik ez hiririk. Gelditzen diren biztanle apurrek esklabu moduan egingo dute aurrera...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.



Irizar 2  
☎ 943 76 14 95

**JAUJA  
KIROLAK**

**LONBIDE  
OINETAKOAK**

Bidekurutzeta 5  
BERGARA

☎ 943 76 10 57



**ETXAGI  
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

**Udaleko Kirol Zerbitzuak defentsa pertsonaleko ikastaroa jarri du abian. Batez ere emakumezkoei dago zuzenduta, eta hamabik eman dute izena. Joxean Iñarra arduratzen da defentsa teknikak irakasteaz.**

**G.** Nondik sortu da ikastaroaren ideia?

**E.** Orain bi urte egin zen lehenengo ikastaroa. Udaletxeko gizarte laguntzaileak deitu zidan tratatu txarrak jasaten zituzten Bergarako emakumezko batzuei defentsa pertsonaleko ikastaroa emateko. Aurten, Udaleko Kirol Kanpainaren barruan kokatu da, jendeak eskatu egin duelako agian.

**G.** Zer da defentsa pertsonala?

**E.** Izenak dioen bezala, gure burua defendatzeko teknika. Normalean gure burua babesteko ez dago zertan gauza handirik jakin, hau da, ez dugu zertan karatea edo horrelakorik jakin behar. Nahikoa da lau edo bost gauza jakitea erasotzen zaituen pertsonarengandik askatzeko.

**G.** Nori zuzenduta dago ikastaroa?

**E.** Irekia da, baina izena eman duten guztiak emakumezkoak dira, gazteak. Eta normalean horrela izaten da.


**G.** Zein teknika landuko dituzue ikastaroan?

**E.** Nik normalean lau multzotan banatzen dut ikastaroa. Lehenengoan, kolpeak non eta nola eman irakasten dut. Emakumezkoek ez dute gizonek besteko indar fisikorik, beraz, euren tresnak nola erabili ikasten dute eta gizonari non min egin. Bigarren multzoan, behin gizonak emakumea helduta duenean nola askatu irakasten dut. Hirugarrenean, behin gizonak

**JOXEAN IÑARRA**

Defentsa pertsonaleko irakaslea

*“Emakumeek euren burua babesteko, nahikoa da lau edo bost teknika jakitea”*



Joxean Iñarra arduratzen da defentsa pertsonaleko teknikak irakasteaz.

emakumezkoa lurrean duenean nola askatu irakasten dut. Izan ere, bortxaketa bat ematen denean gizonezkoak lurrera botatzen du emakumea. Badira teknika batzuk hemendik askatzeko ere. Eta laugarren multzoan tresnez aritzen naiz: nola erabili orrazi bat, poltsa bat edo boligrafo bat gure burua babesteko. Baita atzaza-

***“Ikastaroa lau ataletan banatuta dago, eta bortxatzaileak emakumea lurrean duenean, nola askatu daitekeen ere lantzen dugu”***

lak ere. Normalean txikitzen atximurka edo haginika egiten genuen, baina nagusitutakoan gauza hauek alde batera uzten ditugu. Defentsa pertsonalerako, baina, oso erabilgarriak dira.

Astelehenean hasi genuen ikastaroa, eta argi esan nien, erasotzailea, emakumea menperatu eta min egitera doala; horren aurrean eskura dagoen guztia erabili behar du emakumeak defendatzeko.

**G.** Efektiboak dira ikastaro hauetan ikasitako teknikak?

**E.** Bai. Gertatzen dena da, ikastaro hauetan izena ematen duten emakume batzuek uste dutela hainbat teknika ikasi ostean Superman direla, eta ez da horrela. Ikastaroko lehenengo egunean argi utzi nahi izan nuen beste gauza bat zera da: lehenengo saiatu behar direla erasotzailearekin hitz egiten. Honek funtzionatu ez balu, orduan ikasitako tekniketara jo beharko lukete. Eta badira efektiboak. Azken batean ez ditut kolpe asko erakusten, batzuk bakarrik, baina eragingarriak.

**G.** Edozein emakumek ikasteko teknikak dira?

**E.** Bai. Hemen adina ere ez da garrantzitsua. Pentsa, adibidez, etxekoandre bategi bere senarrarengandik tratatu txarrak jasotzen dituenen, zenbat gauza dituen eskura defendatzeko. Gertatzen dena da, gogorra dela, gauza askogatik, senarra jotzea edota ez dakiela gailu horiek nola erabili.

**G.** Gomendatuko zenieke ikastaroa emakumeei?

**E.** Bai. Duen eragozpen bakarra da, denborarekin ahaztu egiten direla teknikak. Hori dela eta, ikastaroz gain jarraipen txiki bat egitea ere gomendatuko nieke.



## Gauza guztiak gertu domekan San Martzial erromeria ospatzeko

Goizean bai, baina arratsaldeko 15:00etatik aurrera ezingo da autorik igo

**San Martzial eguna da gaur. Urtero gisa jende ugari espero zen San Martzialera letania erreztatzu igotzea. Bestalde, domekako ospakizunera guztiak prest dago. Norberak jan-edana eta umorea igotzea besterik ez da falta.**

Urteroko ohiturari jarraiki, goizeko 7:30ean Santa Marinatik ateratzekoa zen letania erreztatzu San Martzialerako igoera. Behin goian, meza, eta ostean hurbildutako guztientzat txokolatea zegoen aurreikusita. Eguerdian, jubilatua bertan bazkaltzekoak ziren.

Santuaren eguna gaur izan arren, domekan ospatu izan dugu erromeria, egun bizi eta alaia. Goizeko 9:15ean, alborada izango da Erletxo taldeko dultzainero, Xafre eta Zaharra trikitilari, Eos Incansables txaranga eta Udal Txistulari Bandarekin. Gurdi igoera 10:30ean izango da, eta 11:30ean Meza nagusia San Martzialgo basilizan. 12:30ean Xamat taldeko kideek hainbat dantza eskainiko dituzte, eta ondoren ohiko soka dantza eta aureskua egongo dira.



Bazkal aurretik ohiko soka dantza eta aureskua dantzatzuko dira kanpan.

Aureskuaren ostean, Narbaiza eta Egileor bertsolarien saioa izango da eta baita abesti herrikoiak ere kantina parean.

Abestiekin, amaitutzat emango da goizeko ekitaldi sorta, eta baita bazkal ordua iritsi ere. Aurten, 324 mahai alokatu dira Udalean.

Bazkal ostean, umeentzako jolasak egongo dira 16:00ak aldera, eta 18:00etan sokatira eta txinga jokoak nagusitxoagoentzat. Sokatira jokorako, 6 laguneko taldeak egongo dira eta gehienez 8 taldek jokatu dute, gizon zein emakumezkoetan. Izen ematea

egunean bertan egingo da, arratsaldeko 17:00etan. Ordu berean, Aranzabal Orkestrak alaitutako erromeria egongo da. Bestalde, bolatokia egun osoan egongo da irekita.

Horrez guztiaz gain, zapatuan, erromeria bezperan, ere izango dira hainbat ekitaldi. Arratsaldeko 19:00etan bonba japoniarrak egongo dira San Martin plazan. Ondoren, buruhandi eta erraldoien kalejira izango da Udal Txistulari Banda eta Kobok dultzainero taldeak lagunduta. Gaueko 23:30ean, Duo Plaentxik Hegoamerikako kantak es-

kainiko ditu Fraiskozuri plazan, eta Soralezeko bikotearen ostean, Natalio Maiztegiaren dantza erakustaldia egongo da, hau ere Fraiskozurin.

### UDALAREN OHARRAK

San Martzial jaiaren inguruan honako oharrak egingo ditu Udalak: batetik, guztiz debekatuta geratzen da mahaiak jartzeko terrazak edo lautadak egitea; bestetik, kanpan, mahaiak norberak jartzen baditu, eguna pasatu eta gehienez ere 15 egunera kendu beharko dira, bestela Udalak berak kenduko ditu. Horrez gain, zaborrak botatzeko ontziak erabiltzea eskatzen da, eta arreta berezia ipintzea inguru horretan landatu diren gaztainondoekin eta bertan dauden enbor zaharrekin.

Bestalde, gogoratu Ondartza baserritik gora doan bidea itxita dagoela. Kotxe igotzeko, betiko bidea erabiliko da, baina jaitsi, kilometroak-erako prestatutako bidetik (Lamainotik). Arratsaldeko 15:00etatik aurrera, moztu egingo da Santa Marinako igoera kotxe partikularrentzat. Urbanoa soilik pasako da.

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

# AZPEITXI

**Jatetxea**

Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

**REMENTERIA**

**Altzariak**

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

# Irukurutzetako parkea bertan behera lagatzeko eskatu dio Udalak Jaurlaritzari

**Udalak** Irukurutzetako parke eolikoaren egitasmoa bertan behera utz dezala eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari, asteleheneko plenoan onartutakoaren arabera. Ondorio horretara, Udalean aztertu eta aurkeztu diren iradokizun eta proposamenen bidez heldu da udalbatza.

Eusko Jaurlaritzako energia eolikoari buruzko Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerapen dokumentua Udalean izan da jendaurrean bi hilabetez. Dokumentuan, parke eolikoaren kokapen posiblea zehazten da, eta horien artean Irukurutzetako dago: 4,7 kilometrotan, Karakate mendian hasi eta mendi gailur guztia hartuz Irukurutzetaraino (Soraluze, Azkoitia eta Bergarako lursailak), 37 aero-



Elgean, 128 haize-errotak jarriko dira; oraingoz, 37 daude.

JOSU GARAI

generadore kokatuko lirateke. Hauetako 4 Bergarako lur eremuan, eta 500 metroko luzera hartuko lukete.

## BABES BEREZIKO EREMUA

Dokumentua aztertuta, honako ondorioetara heldu da Udala: Karakate-Irukurutzeta-Agarreburu eremu

guztirako "biotopo babestu" izendatzea eskatu dio Jaurlaritzari, Soraluzeko Udalak egin bezala. Gainera, Arau Subsidiarioetan, "babes bereziko eremu" kalifikazioa du Irukurutzetan hasi eta Irimo arteko mendilerroak. Ingurugiro batzordeak egingdako azterketaren arabera,


Bergaran dagoen pagadi ederrenean eragin nabarmena izango luke parkeak, eta inpaktu bisuala ere oso handia izango litzateke.

## EREMU MEGALITIARRA

Udalbatzak, bestalde, Udal museologoak eta Kapirixoko elkarteak aurkeztutako idatziak ere kontuan hartu ditu. Izan ere, parke eolikoa jarri nahi den zonaldean, Elosu-Plaentzia eremu megalitiarra dago. Neolito-bronze aroko 15 monumentuz osatuta dago, eta hauetako 5 Bergarako lurretan aurkitzen dira. Parke eolikoak 5 hauetatik birengan eragin zuzena izango luke. Bestalde, Bergarako megalitoguztiak Arau Subsidiario-etako monumentuen katalogoan jasota daude, eta, ondorioz, babestuta.

## San Juango plaza berriztu egin da

**San Juan auzoko plaza** inauguratu zen joan zen zapatuan, San Juan egunarekin bat eginez. Plazari hainbat egokitzapen egin zaizkio: zabaldu egin da eta eserleku eta farola berriak jarri dira. Bestalde, plaza ondoko berdegunea handitu egin da mendiarri zatia janzuz. Bertan, umeendako jolasgunea egin da, eta hainbat ziburu jarri dira. Aurrekontua 22 milioi pezeta ingurukoa izan da.



**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA



**BANKINTER**

Zure hipoteka merkatuko preziorik onenean

**%3,25\*** etik aurrera

\*Irekiera komisioa: %1  
\*Lehen 6 hilabeteak  
\*35 urte bitartearaino

# Goiena Kooperatiba Elkarteak notari aurrean erregistratu zen martitzenean

**Goiena** Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak legeztatzeko eta notari aurrean erregistratzeko ekitaldia izan zen martitzenean Bilbon. Bailarako euskara elkarte guztietako ordezkariak bildu ziren eskriturak sinatzeko. Jardun elkartearen izenean, Estepan Plazaolak eta Iñaki Madariagak, bi hauek Kontseilu Erretoreko kideak, eta Jose Angel Mikeok, Jarduneko lehendakari bezala, sinatu zituzten eskriturok.

Euskaraz erregistratu dira eskriturak eta horretarako gaitasuna duten notari gutxi daudenez, Bilboraino joan beharra izan dute. Andres Urrutia euskaltzaina izan da notaria.

## URTEBETEKO BIDEA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak Debagoienean euskarazko komunikabideak bultzatu eta kudeatzeko jaio da. Bailarako euskara elkarteak dira kooperatiba honetako bazkide nagusiak. Goienaren aurtengo erronka nagusiak Goiena Telebista bailara osora zabaltzea eta Debagoieneko etxeetan banatuko den egunkari formatuko astekaria, Goienkaria, abiatzea dira. Hala ere, etorkizunean telematikaren eta interneten munduan sakontzea du helburu.

Goiena kooperatiba elkartearen sorrera batzarra martxoaren 31n egin zen Aretxabaletan, Otolora etxe-



Martitzenean sinatu zituzten Bilbon Goienako eskriturak.

an. Hala eta guztiz ere, lehen urratsak orain dela urtebete eman ziren, eta ia zoko urte amaieran adostu zuten proiektua Debagoieneko elkarte guztiek. Orain, baila-

ran euskarazko komunikabideak bultzatzeko beste urrats bat eman da. Goienak Batzar Orokorra egingo du uztailaren 20an karguak izendatzeko.

# Beherapenak

# 30%

# eraino



# MAYA

Oinetakoak Arropak Zilarra

Helbide berria: Irala kalea z/g

# Berrigara

416 zenbakia.  
2000ko ekainaren 30a.

**Irizar jauregia, Barrenkalea 33.**  
20570 Bergara.  
**Telefona:** 943 76 03 97  
**Faxa:** 943 76 29 77  
**Posta elektronikoa:**  
berrigara@topagunea.com  
**Argitaratzailea:** JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.  
**Testuen zuzenketa:** Alex Labaien,  
Mariji Laskurain, Estepan Plazaola.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate,  
M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien,  
Estepan Plazaola.  
**Komikialak:** Unai Azkarate, Oihan Vega,  
Usa Mendikute, Gorka Ortega &  
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre,  
Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,  
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara

Tirada: 5.300 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen  
aldizkaria adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Berrigara  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jauriaritzako  
Kultura saila

## gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.  
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### BERGARAKO ONDAREA DESAGERTZEN

Dagokien arduradunei:  
Eskutitz hau idazten du-  
gu gure desadostasuna  
adierazteko, jaso dugun ber-  
ri hau ez zaigulako batere  
ondo iruditu. Berri hau ze-  
haztu beharra dagoela ba-  
dazkigu, aspaldi honetan ez  
duzue horrelako gutxi egin  
eta. Berau, "Labegaraieta-  
ko" tximinien suntsipena  
izan da.

Bergarako historia eta  
ondarearen parte den eta  
hainbeste ahalegin kostatu-  
tako eraikina, errazegi bota  
duzuela iruditzen zaigu.  
Gure ustez, herriaren iritzia  
kontuan hartu beharko ze-  
nuketean, ez irabazitako di-  
ruaren kopuruarekin pentsa-  
tu bakarrik, udaletxearen  
dirua gastatzeko dago, eta  
ez aurrezteko. Gutxienezko  
diru bat, tximinietan gastatu  
behar zenuten, hauek ber-  
rizten, eta horrela ondare  
eder hau mantentzen la-  
gundu. Martxa honetan  
ondarerek gabe geratuko  
gara eta.

Besterik gabe agurtzen  
gara DBH 4.eko ikasleak,  
gure gaiarekiko iritzia kon-  
tuan hartuko duzuelakoan.

*Ipintza Institutuko DBHko  
4Bko ikasleen izenean,  
Esther Reinoso Crespo*

### EGOERA JASAN EZIÑA

Euskal inguruan mugitzen  
dan jende bat, fakultade  
mental batzuk medixo dire-  
la, hau da, beren gorputze-  
tatik irtezeko kapazidade  
mentala daukelarik eta jen-  
dia herriko etxetan nola bizi  
garen, ikusteko, entzuteko  
eta zer pentsatzen dogun ja-  
kitekoko fakultate mentalak  
daukelarik, orain dela bi ur-  
te neri etengabe begira ari  
dittuk, hau da, egunian 24  
ordu, ni nola bizi naizen,  
nik zer pentsatzen doten eta  
neri kalte egiteko intentzi-  
ñuakin.

Hau geixau jasan eziña  
danez, eta kalte pilo bat  
aguantau ostean, hemen  
kontauko ez ditudan gau-

zak barne, gutun hau idaz-  
tera ausartzen naiz jende  
honen jokaeria salatu  
nahian.

J.X.A.

N.A.N.: 15.384.331

### ZUZENKETA

Joan zen asteko alean, Eus-  
kadiko Dantza Sueltoari bu-  
ruzko albistean, 25. orrial-  
dean, ez genuen Janire Ur-  
bieta dantzari bergararraren  
aipamenik egin. Xabier  
Azurmendirekin bikotea  
osatuz, Janire zortzigarren  
postuan sailkatu zen Segu-  
ran jokotutako txapelketan.  
Lerro hauen bitartez barka-  
mena eskatu nahi diogu Ja-  
nire Urbietari.

tira biraka unai eta peru azkarate



## atrebentzia ezpada

## San Martzialera juateko ohiturarik badaukazu? Bikote billa juaten ei zan lehen jendia...



**Paulina Errasti**

Orañ ez. Lehen jendia bikote billa juaten zala esaten dabe, baiña ni behintzat ez. Mozkorren eguna ei da, gaiñera...



**Antonio Iñarra**

Gaztetan beti juaten nintzan. Orduan, gaiñera, San Martzial egunian bakarrik heldu zeikien emakumiei. Badakizu, lehengo kontuak.



**Juanita Peñalba**

Beti juaten giñan. Neretako urteko egunik polittena izaten zan. Ni ez nintzan nobixo billa juaten, baiña etortzen bazan, ba, pozik.



**Iosu Unamuno**

San Martzialera juaten gara, baiña ez bikote billa: parrandia egiñ, eta ondo pasatzera juaten gara. Gaiñera badaukat bikotia.



**Rufina Igarza**

Orañ ez baiña gaztetan juaten giñan. Ni ez nintzan bikote billa juaten, dantzan egiñ eta izerdi batzuk botatzera.



**Gabriel Medina**

Beti juaten nintzan San Martzialera. Egixa esan, egun horretan gehixago ligatzen zan, askatasun haundixaua zeuan eta egun horretan.

## bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.  
Identifikazioa beharrezkoa.

### GORLAKO KOTXE IGOERAREN ONDORIOAK

**J. Alberdiren** deia jaso dugu aste honetan. J. Alberdi joan zen ekainaren 10ean Gorlan jokaturako kotxe igoera ikusten izan zen, bere lagun batzuekin, eta lotsagarria iruditu zitzaion jendearen portaera zaborrak edozein tokitan lagatzeagatik. J. Alberdiren arabera, antolatzaileek arazo horri ez zioten duen garrantzia eman, eta garbiketa egiteko orduan berandu samar ibili zirela dio. Proba ondorengo egunetan Gorlarako bidea zaborrez beteta egon zen, eta garbiketa nahiko berandu egin zen, zoritxarrez, J. Alberdiren ustetan. Hurrengo batean horrelako gauzak gehiago zaintzea eskatu nahi die antolatzaileei eta ikusleei, probaren eta guztion onerako izango delakoan.

# Kizkur

Ileapaindegia  
Estetika  
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

# Garnish

## Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

# Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

# Agirrebeña

IAETEXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38



Gozogintzan  
aintzindari.

# Protektzioa eguzkitan

**D**uela bi aste izandako tenperatura altuen erruz, eguzkiak erretako jende dezente izan da. Beltzaran-kolorea hartzeko orduan babesa beharrezkoa da. Prebentzioari dagokionez, gomendio batzuk jarraitzea ondo etorriko zaigu. Alde batetik, eguzkia progresiboki hartu behar da, eta eguzkitan igarotzen ditugun orduak murriztera jo behar dugu (12:00etatik 14:00etara bitarteko tarte da arriskuetsua, eguzkiak orduan jotzen duelako bortitzen). Keizpearen

legearen arabera, keizpea zenbat eta handiagoa izan, eguzkia orduan eta arrisku gutxiagokoa da. Egia da jendeak gero eta kontzientziario handiagoa duela arazo honekin, eta eguzkiak, nolabait esatearren, errespetoa sortzen duela. Babes kremen erabilera guztiz gomendagarria da, 12-15 bitarteko protekzioak ahal bada, eta erropa (algotzkoak fibrazkoak baino hobekak dira), bisera edo eguzkitako betaurrekoak ere lagungarriak izango zaizkigu. Bestalde, hiru hilabetetik beherako haurrei eguzkirik ez hartzea gomendatzen zaie eta gainontzeko neska-mutikoek 20 protekzioeko kremak (ura erresistitzen dutenak) erabili behar dituzte. Dena den, azal motaren arabera protekzio ezberdina gomendatzen da.

Babes krema ugari aplikatu behar da, azala siku dugula, eta, ahal izanez gero behintzat, etxean, eguzki-



JAVIER ESTELLA

Farmazeutikoa

*“Babes krema ugari aplikatu behar da, azala siku dugula, eta, ahal izanez gero behintzat, etxean, eguzkitan jarri baino orduerdi lehenago”*

tan jarri baino ordu erdi lehenago-edo. Eguraldia lainotuta dagoenean ere ematea ondo dago, B ultramore izpiek azalean erreduz eragin ditzaketelako (egun lainotsuetan erradiazioaren %85 jasotzen dugu). Nahiz eta keizpean egon, krema aplikatu behar da, erreflexuagatik, izpiak kaltegarriak izan daitezkeelako. Aipatutako neurriak are eta gomendagarriagoak dira haurren, zaharren edo haurdun diren emakumeen kasuan.

Esan bezala, B ultramore izpiek azalean orbain gorriak sortzen

dituzte, eta A ultramore izpiak, azalaren pigmentazioaren (kolorea) eta azalaren zahartzearen eragileak dira. Eguzkia mesedegarria da (psoriasis edo dermatitisa hobetzen ditu, besteak beste), baina kalteak ere eragin ditzake (melanoma). Diagnostiko goiztiarra eginez gero, melanoma sendagarria da, baina kontrako kasuan minbizirik kaltegarrietakoa da. Estatuan, aurten, 80.000 kasu izango direla aurreikusten da.



Eguzkia hartzeko, babes kremak erabiltzea gomendatzen da. ARTXIBOA



## NARBAIZA-BOLU

**L**ope Martinez de Isastik 1625ean Bergarako Narbaiza oinetxea aipatzen du.

1890ean, ondorengoak bizi ziren Narbaiza-bolun, orduko zentsu ofizialaren arabera: Justo Agirre Azkargorta, 45 urtekoa, errotaria, irakurtzen eta idazten bazekiena, eta Juan Jose Agirre Elokoro-Iribe, 69 urtekoa, nekazaria, irakurtzen eta idazten ez zekiena.

1895ean Juan Agirre agertzen da Narbaiza-boluko errotari.

1929ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak, berriz, honako hau dakar:

*“Angel Agirre Bergarako bizilagunak adierazten du Ubera erreko urak erabiltzen dituela Bergarako lurretan, San Juan auzoan, duen Narbaiza izeneko errotan indarra sortzeko, eta erabilera hori Herri-Uren Aprobetxamenduen Erregistroan inskribatzea nahi lukeela. Darabilen ur kantitatea, batez beste, 100 litro/segundokoa da eta ur-jauzia 4 metrokoa.*

*Eta hau guztia herritarrei jakinarazten zaie...”*

1927. urtean Angel Agirreraren izenean eman zitzaion alta Narbaizako boluari irina egiteko herri-errot gisa eta 1940tik 1963ra Sebastian Agirre Mendizabalaren izenean egon zen. 1963a izan zen herri-errot moduan funtzionatu zuen azkeneko urtea.

Narbaiza-boluko azkeneko errotaria Luis Mari Agirre izan zen, 1929an jaioa.

Elgeta-erreka edo Ubera-erreko urak erabiltzen zituen eta bere eskumata dago.

Bi harri pare zituen, burdinazko bi turtukik eragindakoak.

Harriak pikatzea ere Askasibarrek berak egiten zuen eta ehotakoaren %10eko laka ematen zitzaion. 1975ean egin zuen lan azkeneko aldiz.

KOKAPENA: Bergaratik Elgetarako bidean, San Juan auzoan, Bolintxu baino 800 bat metro gorago.

Antxon Agirre Sorondo



## New York, New York

Eusko Jaurlaritzak **Giza Eskubideen** inguruan antolatutako **kartel lehiaketa** irabazi zuten **Mireia Ortigosa eta Maialen Legorburu New Yorken** izan dira. Mariaren Lagundia ikastolako ikasleak, **Gema Balzategirekin** (Maialenen ama) eta **Mañole Ezenarorekin** (Maialenen izeba) izan ziren Estatu Batuetan. Etxeorratzen hiriko tokiarik ezagunenak (Empire State, Askatasunaren Estatua, Central Park, 5. Abenida) ikusteko aukera izan zuten laurek. Argazkian, Mireia eta Maialen New Yorken.

## Kantabriara irteera

Udaleko **yoga eta eskulan ikastaroetan** parte hartu duen emakume taldeak **Santanderrera irteera** egin zuen ekainaren 7an, ikasturteari bukaera emanez. Autobusean **46 lagun** atera ziren eta **Santillana del Mar** herrian bazkaldu ondoren, arratsaldean **Comillas** bisitatu zuten. Goiko argazkia bertako museoan aterata dago. Oporraldiaren ostean, irail aldera, berriz itzuliko dira klaseetara. Bien birtartean, ondo pasa!!



ARRASATE PRESS

## Arizabaletatarrak Arantzazun

**O**rain gutxi **Arizabaletatarren bazkaria** izan zen **Arantzazun**. Guztira **80 lagun** elkartu ziren, tartean **Kolonbiatik** espreski egun horretarako etorritako lau lagun. Bazkariko nagusia **Maria Arizabaleta** (88 urte) bergararra genuen. Guztiek primerako eguna pasa zuten elkarrekin eta datorren urtean ere biltzekotan geratu ziren.


## ONCEko saria

Ipintza Institutuko **Erika Arteaga, Lidia Diez, Esti Askasibar eta Irune Manzidor** (argazkian) batxilergoko ikasleek ONCE itsuen erakundearen saria jaso dute. ONCEk laburmetraien gidoi lehiaketa deitu zuen eta ikasleek argumentua, gidioa, pertsonaien deskribapena eta kartelaren diseinua landu beharra zeukaten. 15-18 urteko ikasleen mailan Gipuzkoa eta Euskal Autonomi Erkidegoko lehen saria eskuratu zuen laukoteak "La oscura claridad" lanari esker. Sari gisa hitzegiten duten erlojuak (itsuek erabiltzen dituzten modukoak) eta zine zuzendarienak moduko lonazko aulkiak (bakoitzaren izenarekin) eskuratu zituzten. **Jokin Aspiazu eta Itziar Agirre** irakasleen klasekoek ere sariak izan zituzten parte hartzeagatik. Zorionak!!



# Etxebizitzak herrian: gutxi eta garesti

## Etxebizitzen prezioa %15 igo da azken bi urteetan



Askotan entzuten da gazteak gero eta beranduago alde egiten dutela gurasoen etxetik. Arrazoi bat baino gehiago egon daiteke horren atzean, baina etxebizitzaren arazoa da ziurrenik arazo garrantzitsuenetako bat. Langabeziak behera egin duen arren, ez da lan erraza gaur egun etxebizitza bat erostea edota alokatzea. Alde batetik, etxebizitza berri gutxi egiten delako dagoen eskariarekin alderatuz gero, eta egiten direnak garestiak direlako. Eta bestetik, gero eta bigarren eskuko etxebizitza gutxiago dagoelako salgai edo alokagai.

**D**uela gutxi EUSTATEk kalera atera dituen datuen arabera, langabezi tasa jaitsi egin da Euskal Autonomi Erkidegoan orohar. Gipuzkoan, gure eskualdea da langabezia tasarik baxuena duena. Gainera, adituen esanetan, jendeak gero eta segurtasun handiagoa dauka bere lanpostuan. Horrela, etxebizitza bat erosi nahi dutenen kopurua igo egin da. Hori horrela izanik ere, hau da, teorian jendeak gero eta ahalmen ekonomiko handiagoa izanik ere, badirudi gero eta zailagoa dela etxebizitza bat erostea, eta baita alokatzea ere.

### PREZIOEN GORAKADA HANDIA

Merkatua eskaintza eta eskariaren arteko erlazioaren arabera mugitzen da, eta halaxe egiten dute prezioek ere. Etxebizitza bat erostea nahi duen jende asko baldin badago, eta etxebizitza gutxi baldin badago salgai, prezioek gora egiten dute; besterik ez, jendea ordaintzeko prest egongo delako. Are eta gehiago, langabezia tasa baxua dagoen ingurunean.

Duela bi urte dagoeneko aurreikusten zen etxebizitzen prezioen gorakada, aurrez aipaturiko arrazoiak medio. Prezioek %5-10eko gorakada izango zutela esaten zen, eta adituen arabera, %15en bat igo da.

### 400 ETXE BERRI BI URTETAN

Azkenengo bizpahiru urteetan 400 etxebizitza berri inguru eraiki dira Bergaran, gehienak Ibargarain. Udaletxeko Hirigintza Batzordeko buru Joxean Etxeberriaren esanetan, "segituan saldu ziren guztiak, jendeak eskutatik kentzen zituen etxeak. Honekin lotuta, nik uste dut jendeak nahiko ondo ikusten duela bere bizitza profesionala, etorkizuna, lanari dagokionez, ziurtasunez ikusten du, eta garestiak izan arren, erraz saltzen dira egiten diren etxe guztiak". Etxebizitza hauek guztiak instituzioek lagundu gabekoak izan dira, hau da, eraikuntza librekoak.

### BABES OFIZIALEKO 24 ETXEBIZITZA

Hala ere, noski, badago ahalmen ekonomiko hori ez duen jendea. Horrela, babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko dituzte laster batean. Espero da hemendik hilabete gutxira eraikitzen hastea, Etxebideko prentsa arduradun Irantzu Iriondoren esanetan. Guztira babes ofizialeko 24 etxebizitza eraikiko dira, 18 Bonbulun, eta beste 6 Angiozarren. Etxebide Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza zerbitzua da. 18 etxe hauek VPO izendapena jaso dute, babes ofizialeko etxebizitzak, alegia. Etxebizitza hauek lortzeko Etxebideren zerrendan izena eman behar da, eta hainbat baldintza bete behar dira. Hala nola, bi milioi eta

bost milioi bitartean irabaztea urtean, beste etxebizitzarik ez izatea eta Bergaran edo inguruko herrietan erroldatuta egotea. Horrela, etxe hauek adjudikatzeke orduan, hainbat irizpide hartzen ditu kontuan Etxebidek.


Bergaran ez da etxebizitza sozialik egingo. Materialki berdin-berdinak izaten dira sozialak eta babes ofizialekoak. Lehenengo kasuan, Udaletxeak jartzen ditu lur-sailak, eta Etxebidek etxebizitzak eraikitzen ditu. Etxe hauek beharrian handiagoa dutenentzat, egoera larriagoan daudenentzat izaten dira. Bigarren kasuan, Etxebidek, Eusko Jaurlaritzak, erosten ditu lurak, eta baita edifikatu ere. Babes ofizialekoak garestitxoagoak izaten dira.

Etxebizitzak egiteko eta laguntzak emateko instituzioen ekimen hau Udaletxe bakoitzarekin negoziatzen da. Hau da, herrian dauden beharren arabera, babes ofizialekoak, sozialak edo alokairuan jartzekoak egiten dira. Momentuz, Bergaran ez da aurreikusten sozialik eta alokairukorik egiterik.

### 700 ETXE HUTSIK

30 milioi eta gehiago ordaindu ezin duen jende ugari dago, eta badirudi babes ofizialeko edo bigarren eskuko etxe bat izan daitekeela horientzat irtenbidea. Baina ez da erraza bigarren eskuko etxe bat erostea, eta topatuz





---

**Bergaran 700 bat  
etxebizitza dago  
hutsik inbiliariek  
diotenaren arabera.  
Horietatik gehienak  
herriko alde  
zaharreko kaleetan.**

---

---

**Hilabete batzuk barru  
hasiko da Etxebide  
babes ofizialeko  
etxebizitzak egiten  
Bergaran. 6 Angiozar  
auzoan, eta beste  
18 Bonbulun.**

---

gero, oso garestiak izaten dira, gutxi dir-elako salgai daudenak. Joxean Etxeberria Hirigintzako batzordeburuaren esanetan, alde zaharreko etxeak dira hutsik dauden gehienak: "jendeak nahia-  
go du eraikin berri bat zahar bat baino, zaharrek, nahiz eta berriztu, arazoak eman ohi dituztelako. Bestalde, jabeek ere badirudi ez dutela saltzeko beharrik".

Zehatz-mehatz jakiterik ez dagoen arren, zenbait inbiliararen arabera, badirudi 700 etxebizitza baino gehiago dagoela hutsik Bergaran. Horietatik gehientsuenak parte zaharrean. Asko hitz egin da eta hitz egiten da gai honen inguruan. Era guztietako iritzia-  
k daude. Batzuk diote ez dagoela eskubiderik etxe bat baino gehiago eduki eta etxe hori hutsik egoteko, jendea etxebizitarik gabe dagoen bitartean. Beste batzuk, berriz, jabetza eskubidea oinarritzako eskubidea dela diote, eta bakotzak nahi duena egin dezakeela norbere ondasunekin.

**ALOKAIRUA, BESTE AUKERA BAT**

Bigarren eskuko etxebizitza bat erostea zaila baldin bada, are eta zailagoa da etxe bat alokatzea. Eta ez garestiegia delako, baizik eta oso zaila delako etxe bat topatzea alokairuan. Horren arrazoiak galdetzerakoan hauxe erantzun digu Amaia Marco Deba Garaia inbiliarriako arduradunak: "duela lau bat urte lege bat onartu zen; lege honen arabera, gutxienez bost urtetarako alokatu behar da etxea, eta jendeari gehie-



Azkenengo bi urteetan 400 bat etxebizitza berri eraiki da Bergaran, eta prezioak izugarri garestitu diren arren, segituan saldu dira guztiak, Joxean Etxeberria Udaleko Hirigintza Batzordeko buruak esan digunez. Adituen arabera, badirudi %15 igo direla etxebizitzaren prezioak azkenengo bizpahiru urtean.

gizkoa iruditzen zaio epe hau". Hala ere, azkenengo urteetan ez ei da alokairuen prezioa asko igo inguruko herrietan gertatu den moduan. Amaia-  
ren esanetan, "Arrasaten esaterako, ikasle asko dagoenez pisuetan, izugarri igo dira alokairuen prezioak, eta Arrasateko jende asko etortzen da Bergarara etxe bila". Gainera, alokairuekin ez da salmentekin bezala gertatu, ez dira horrenbeste igo prezioak, IPCarekin batera baizik".<

**Etorkizuna?**

**JOXEAN ETXEBERRIA  
Hirigintza Batzordeko burua**

"Gauzak nola dauden ikusita, nik ez dut us-te denboralditxo baten behintzat prezioen gorakada hau geldituko denik. Gelditzeko-tan bi arrazoigatik izango litzateke: alde ba-tetik, interes tipoak asko igoz gero; eta, bestetik, kompetentzia gehituko balitz, hau da, eskaintza eskaria baino handiagoa ba-litz."

**AMAIA MARCO  
Deba Garaia inbiliarria**

"Nik uste dut laster geratuko dela gorakada hori. Ezin du horrela jarraitu. Prezioek igo-tzen jarraituko dute, baina ez orain arteko abiaduran, soldatekiko proportzionalki bai-zik. Alokairuen prezioa IPCaren arabera igoz joan den bezala, hala behar du etxebizitzaren salmenta prezioekin ere".

**Arantza  
Erlojutegia**

---

Barrenkalea 4  
943 76 10 04



**GAZTELU**  
**BURDINAKI DENDA**

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Irala 3  
Telefonoa:  
943 76 48 26



**IRRINTZI**  
k a f e t e g i a



**Urteaga 9**  
Tf. 943 76 18 45



**Matxiategi  
Elektragintza  
S.L.**

**ELEKTRIZITATE  
MATERIALEN  
SALMENTA ETA  
INSTALAKUNTZA**

**Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.**

**BERGARA  
MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

---

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Urarte 8 BERGARA  
☎ 943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77

# B e r g a r a k o OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 •
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76
- **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXE, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 •
- ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE**
- Eduarne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotritzitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

*Orasunez bizi izateko!*

## Iban Franco eta Mikel Larrañaga 2.B mailara Eibar taldearekin

### Domekan Huescan irabazi zuten "Maki"ren gol bati esker

**Mikel Larrañaga "Maki" antzuolarrak eta Iban Franco bergararrak Eibar futbol taldearekin 2. B mailara igotzea lortu zuten domekan, Huescan 0-1eko emaitzarekin irabazi ondoren. Luzapeneko minutuetan "Maki"k partiduko gol bakarra egin zuen, buruz.**

Mikel Larrañaga "Maki" taldeko beteranoenetakoa da, 29 urterekin. Hirugarren denboraldia bete du eibartarrekin eta taldeko bigarren kapitaina da. Ligan lau garren sailkatu ondoren, 2.B mailara igotzeko play-offa jokatzeko sailkatu ziren Javier Mandiolarren mutilak. Baina Realak, Lemonak edo Arenasek lortu ez dutena eskuratu dute eibartarrek, 2. B. mailara igotzea alegia. "Maki"k esaten duen moduan, "liga hasieran, gure helburua kategoriari eustea eta talde nagusirako jokalaririk ateratzea zen, baina aurrean sailkatzea lortu genuen, eta, hortik aurrera, genuen guztia eman dugu play-offeko partiduetan. Hiru aurrelari lesionatu zitzaizkigun, baina euren ordezkoak bikain aritu dira, eta talde guztiak multzo



Iban Franco eta "Maki" astelehenean Agorrosinen ateratako argazkian..

trinkoa eratu du. Hori izan da igoera lortzeko sekretuetako bat. Horrez gain, taldeak futboleko egiten bada kiela ere erakutsi du denboraldi osoan".

#### **BIGARREN ERREGIONALETIK**

Play-offean Eibar bere multzoko txapelduna izan da, Noja, Mirandes eta Huescaren aurretik. Lortutako lau garaipenetatik hiru luzapeneko minutuetan lortu dituzte. Domekan ere 92. minutuan iritsi zen "Maki"ren gola: "ordurako lehertuta geunden eta zentralak kornerra errematatzeraz joateko

esan zidan, berak ezin zuela. Ez dakit zela, baina baloia buruz errematatzea lortu nuen. Beraien atezainak ez zuen errematea ondo neurtu, eta, zorionez, baloia sareetara sartu zen. Gol hori ginga moduko bat izan da, eta igoera lortzeak meritu handia du, oso zaila delako. Peña Sportek 10. ahaleginean lortu du, Realak hirugarrenean huts egin du berriz... Nojak eta Huescak adibidez 50 milioiko aurrekontua dute eta guk, berriz, 15 inguru. Lortu duguna baloratzea da". Sei urteetan Eibar 2. erregionaletik 2.B mailara pasa da.

Joan zen denboraldian Bergararekin hirugarren mailara igotzea lortu ondoren, Iban Francok (22 urte) 2.B mailarako igoera ezagutu du aurten. Domekan partidua osoa jokatu zuen Alcorazeko zelaietan, erdialdean lan bikaina eginez: "pozik nago aurten egindako denboraldiarekin, pubis arazoen engatik ia lau hilabetez lesionatuta egon naizen arren. Oso giro ona aurkitu dut taldean eta asko ikasi dudala uste dut". Oraindik bietako inork ez du Eibarko lehen taldearekin jokatzeko aukerarik izan. Periko Alonsok Maki konbokatzen zuen behin: "gertatzen da 23 urtetik beherakoek filialeko fitxarekin jokatu dezaketela, baina hortik gorakoek talde nagusirako fitxa izan behar dute. Nik zaila daukat, baina Ibanek, fisiko aldetik hobetzen badu, lehen taldean jokatzeko aukerak ditu".

Datorren denboraldian biek ere Eibarren jarraituko dute. Orain, uztailearen azkenekoa, oporrak izango dituzte. Makik azaltzen digunez, "ziurrenik fitxaketa berriak izango dira, eta, beharbada, Realak ere jokalariren batzuk lagako dizkigu. Ikusi egin behar".

☎ 943 76 20 61

**Silvestre Muñoz, s.l.**  
**pinturak**

610 25 99 82 / 610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean  
•  
Pintura industrialak  
•  
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

**FRONTOI**

**TABERNA**


Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

## Herriko igerilariak udako denboraldian

**Igeri Elkarteko** Eli Las-kurain, Neritzel Albisua, Goiatz Perez, Maite Urzelai eta Amaia Rodriguezek parte hartuko dute bihar, zapatua, Euskadiko infantil mailako txapelketan, Santurtzin. Bestalde, Nerea Anduaga, Jayet Ruiz eta Eneritz Muguruza Eibarko San Juan sarian izango dira bihar. Eneritzek hurrengo asteburuan Donostian jokatu den Euskadiko Txapelketa Absolutoan hartuko du parte. Maiatzean, Tarbesen, hi-

rugarrera izan zen 50 m. librean eta 100 m. bizkarreran.

Gipuzkoako Igerilari Osoaren Txapelketan, Goiatz Perez laugarren sailkatu zen, Neritzel Albisuak 7. postua lortu zuen eta Maite Urzelai 9. geratu zen. Oñatiko Txantxiku sarian, Eli Las-kurainek irabazi zuen 100 m. tximeleta proba eta Eider De la Roza hirugarrena izan zen. Maite Urzelai laugarren geratu zen 100 m. bizkarreran eta Neritzel Albisua 3. 100 m. libreetan.



Argazkian, Igeri Elkarteko taldekideak.

ARTXIBOA

### JASONE LARRAÑAGA/ Ipintzako txapelketako antolaketa batzordekoa

## "Amak animatuta hasi nintzen futbolean jokatzeko"

**Bergarako nesken futbol taldean hasieratik ari da jokatzeko, aurten zazpigarren denboraldia bete duelarik. Denboraldi borobila gainera, Gipuzkoako kopa irabazi baitute. Jasone (23 urte) Ipintzako txapelketako antolaketa ari da egunotan. Aldi berean, Potzu ta zapaburuak taldearekin jokatzeko du, senior mailan.**

**G.** Nondik datorkizu futbolerako zaletasuna?

**E.** Anaiak jubeniletan jokatzeko zuenean, amarekin joaten nintzen partiduak ikustera, etxean denok izan gara kirolzaleak: ama pilotarekin, anaia futbolararekin eta pilotarekin... Amak animatuta, ahizpa eta biok izena eman genuen nesken futbol taldea sortu zenean eta hor jarraitzen dut, gustora gainera.

**G.** Zein postutan moldatzen zara ondoen?

**E.** Hasieran aurrean jokatzeko nuen, gero ze-

lai erdian eta orain defentsan. Atezain izan ezik, denetik jokatu izan dudala uste dut. Gehien zelai erdian jokatzeko gustatzen zait.

**G.** Beste kirolik egin duzu?

**E.** Atletismoa baina oso denbora gutxian.

**G.** Zer moduz Ipintzako txapelketan?

**E.** Semifinaletan sartuko garela uste dut baina Lai Lai Lai eta Zutaz pentsatzen dira favoritoak. Atezain on bat izateak zerikusi asko du eta gu txandaka ibiltzen garenez, oso erraz sartzen dizkigute golak.

**G.** Txapelketako gauzarik onena eta txarrena?

**E.** Onena horrenbeste ekipo parte hartzea eta txarrena talde batzuek duten ganora eskasa; lau talde kanporatu be-

har izan ditugu jokatzeko ez aurkezteagatik. Zoritxarrez, lesio larriren batzuk ere izan dira.

**G.** Pike asko egoten da?

**E.** Jokalari kamorristak dituzten betiko ekipoak daude baina orokorrean jendea ondo portatzen ari da.

**G.** Gustoko jokalaria bat?

**E.** Lehen Michael Laudrup gustatzen zitzaidan eta orain Fernando Redondo. Realetik De Pedro izan da nire favoritoa, baina azkenaldian egiten dituen komentarioekin... Aranzabal hobea.


**G.** Zeinek irabaziko du Eurokopa?

**E.** Egia esan, ez dut gehiegi jarraitu Ipintzan sartuta egon garelako baina badirudi Frantziak irabaz dezakeela.

## IKUSBI

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09



## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13

## PISZINETAKO TABERNA

Bokadiloak  
Pintxoak  
Kazulitak

Boni Laskurain z/g  
Tf. 943 76 53 55

# Beti-Busti taldea Espainiako Kopan hirugarren sailkatu da

**Amaitu** berri den denboraldian Bergarako Beti-Busti piraguismo taldeak hirugarren postua eskuratu du Espainiako ur bizietako slalom Kopan, Atletico San Sebastian eta Irungo Santiagotarrak taldeen atzetik. Junior mailan Eneko Iturrospe hirugarren sailkatu da, Lleida, Granada, Galizia eta Bidasoan jokaturako probak jokatu ondoren. Jokin Guridi bosgarren izan da. Bestalde, senior mailan, Gorka Fernandez 10. geratu da.

Infantil mailan, Markel Agirre Gipuzkoako txapel-dun izan da eta Iraitz Artola laugarren tokian sailkatu da. Espainiako Federazioak irailean L' Seo d' Urgell (Lleidan) egingo duen kontzentrazioan izango da Markel Agirre.



Argazkian Beti-Bustik aurtien Bideberrin antolatutako proba bateko irudi bat.

Iñaki Gallastegi Beti-Bustiko arduradunetako baten hitzetan, "aurtengo denboraldia ona izan da, eta argi geratu da Gipuzkoako taldeak direla indartsuenak ur bizietako slalom probetan. Datorren denboraldian Eneko Iturrospe junior maila

lako munduko txapelketan izateko itxaropena dauka". Urtean zehar Deba ibaian, Olan, entrenatzen dira Beti-Bustikoak, 75 m. inguruko tartean. Era berean, Gipuzkoako beste talde batzuekin batera ere entrenatzen dute, esperientziak

eta ezagutzak elkartrukatzeko asmoarekin. Urtean zehar ikastaroak antolatzen dituzte, eta negu partean eskola kirolean dabilzan gaztetxoak kanpoko igerilekuan entrenatzen dira. Orain, uda partean, itsasoan, errekan edo pantanoan ibiltzeko irteerak ere antolatzen dituzte. Zapatu hone-tan, Errobira joango dira.

Bestalde, datorren uztailaren 9an Saturraran-Deba travesia jokatu da, eta Beti-Bustik zaletuei bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi die. Egunean bertan goizeko 10etan Deban bilduko dira partehartzaileak. Beti-Bustiko kideek, abuztuaren, Frantziara, Alpeetara, irteera egiteko asmoa dute. Taldeak 40 bazkide inguru ditu egun.

## Markel Larrañagak eta Oier Tolak gerriko beltza lortu

**Gerriko beltza** eskuratzeko probak gainditu dituzte Oier Tolak eta Markel Larrañaga karatekek. Joxean Iñarraren agindutara, biak urte osoan entrenatu dira gerriko beltza lortzeko eta Donostian egindako deialdian bost epaileren au-

rrean beren maila erakutsi behar izan zuten. Katak eta kumiteak (borrokak) egin ondoren, gerriko beltza lortu zuten biek. Markel (13 urte) gerriko beltza jantzi duen Euskadiko karatekarik gazteena izan da aurtien. Oier Tolak 14 urte ditu.



Oier Tola, Joxean Iñarra eta Markel Larrañaga.



**PINTURAS BERGARA S.L.**

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.

**A  
R  
R  
A  
N  
O**




**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

# I P I N T Z A K O

## futbol txapelketa



### Aldaketa gutxi kategoría ezberdinetako sailkapenetan

Astehenero ekaitzaren ondorioz, bertan behera geratu ziren egun horretarako iragarritako partiduak. Uta eta Mongitxarrak taldeen artekoa, beraz, asteheneroan jokatuko da, 19:15ean. C multzoan La Juve kanporatua izan da Mongatxurra kontrako partidura ez aurkezteagatik. D multzoan Angiozarrek 2-1eko emaitzarekin irabazi zion Game Overri eta lidergoan jarraitzen du, jokatutako lau partiduak irabazi ondoren. B multzoan Osintxu eta Down taldeen arteko partidu interesgarria jokatuko da eguaztenean, 19:15ean. Beteranoetan oraindik goiz da finalerdietarako zeintzuk sailkatuko diren jakiteko. Nesken kategorian Baleikek eta Lai Lai Laik lider jarraitzen dute kadete eta senior mailan. Kadete ligan Antzuola taldeari oraindik ez diote golik egin. Gaur, eguakitzan, Baleike liderraren aurka jokatuko dute, 19:00etan.

### azken emaitzak

#### NAGUSIAK

Game Over-Angiozar **1-2**

#### BETERANOAK

La Guipuzcoana-Sora **5-2**

Arloteak-Ezinleike **2-2**

Bildurbarek Opel Lam-Txipiron **11-1**

Aintzinakoak-Bar Canalejas **4-2**

#### NESKAK

Pentol's Team-Antzuola **1-5**

Zutaz pentsatzen-Lai Lai Lai **1-2**

Elgeta-Ogizun **1-3**

Aldrebesak-Antzuola **0-0**

Baleike-Eka **5-1**

Jo ta ke-Gu ta gutarrak **8-0**

Gu ta gutarrak-Baleike **0-8**

Antzuola-Jo ta ke **7-0**

Lai Lai Lai-Pentol's Team **8-0**

Ogizun-Zutaz pentsatzen **0-4**

Potzu-Elgeta **2-2**

### partiduak

#### NAGUSIAK

##### Astehena 3

19:15: Uta-Mongitxarrak

##### Martitena 4

19:15: Wartutale-Tojhu

20:30: Arloteak-Txokokuak

##### Eguaztena 5

19:15: Osintxu-Down

20:30: Altos Pornos-Fo Fo Fo

#### BETERANOAK

##### Eguena 6

19:30: A Ze Flaxa- La Guipuzcoana

19:30: Aintzinakoak-Arloteak

20:30: Bildurbarek Opel Lam-Sora

20:30: Ezinleike-Os Jardineiros

#### NESKAK

##### Eguakitzan 30

19:00: Jo ta ke-Eibartarrak eta Baleike-Antzuola

20:00: Eka-Gu ta gutarrak eta Zutaz pentsatzen-Potzu

21:00: Pentol's Team-Ogizun eta Antzuola-Lai Lai Lai

##### Eguakitzan 7

19:00: Antzuola-Eka eta Eibartrrak-Baleike

20:00: Aldrebesak-Jo ta ke eta Ogizun-Antzuola

21:00: Potzu-Pentol's Team eta Elgeta-Zutaz pentsatzen

### sailkapenak

#### A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	10	4	8	0
2. Fo Fo Fo	7	4	11	8
3. Faburto	6	4	8	6
4. Altos Pornos	6	4	6	7
5. Txokokuak	0	4	3	17

#### B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Osintxu	12	4	16	6
2. Down	12	4	8	4
3. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	6	4	4	5
4. Ezinleike	3	5	6	10

#### C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	12	4	12	2
2. Gore	9	4	7	5
3. Tojhu	3	3	3	3
4. Wartutale	3	3	1	6

#### D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	12	4	10	3
2. Matxakategi	7	4	6	4
3. Game Over	6	3	10	9
4. Uta	1	3	5	10
5. Mongitxarrak	0	3	2	7

#### Beteranoak A

	P	J	GA	GK
1. Aintzinakoak	6	3	24	7
2. Ezinleike	4	2	7	5
3. Arloteak	4	2	6	4
4. Bar Canalejas	3	3	9	9
5. Os Jardineiros	0	2	1	22

#### Beteranoak B

	P	J	GA	GK
1. La Guipuzcoana	4	2	6	3
2. A Ze Flaxa	3	1	11	0
3. Bildurbarek Opel Lam	3	1	11	1
4. Sora	1	2	2	16
5. Txipiron	1	2	2	12

#### Neskek, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Baleike	12	4	17	6
2. Antzuola	10	4	15	0
3. Aldrebesak	7	5	10	8
4. Eka	6	4	4	9
5. Jo ta ke	3	4	12	26
6. Gu ta gutarrak	0	5	1	34

#### Neskek, seniorrak

	P	J	GA	GK
1. Lai Lai Lai	15	5	24	4
2. Zutaz pentsatzen	9	4	28	3
3. Ogizun	6	4	7	10
4. Elgeta	4	5	9	15
5. Potzu ta zapaburuak	4	4	6	11
6. Pentol's Team	3	4	4	28
7. Antzuola	3	4	8	15

**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Soraluzen pisua salgai. 50 m<sup>2</sup>. Amueblatua. 5,8 milioi. 943 75 21 36.

Apartamentu txikia Barrenkalean. Amueblatua. 656 740 165 (Mikel).

San Lorentzo. Berriztua eta jantzia. 619 522 971 (Carmen).

Etxe handia salgai Morentinen (Nafarroa). Deitu 943 76 23 12 telefonora.

Barrenkalea. Egunez: 656 732 026. Gauzez: 943 35 39 91.

Etxea eta garajea salgai Bolun. 943 76 07 77.

Jaka. Igerilekua, tenis-pista... 943 76 29 56.

**ERRENTAN EMATEKO**

Apartamentua alokairuan Benidormen. Levante hondartzan, lehen ilaran. 943 74 38 27 / 20 31.

Apartamentua Saloun, uztailean eta irailean. 943 79 88 50.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**  
Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**  
Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**  
Agurrak  
Kontaktatuak  
Deiak  
Bestelakoak

**ERRENTAN EMATEKO**

Bolun (100 m<sup>2</sup>) eta Arruriagan (18m<sup>2</sup>) lokalak alokairuan. 606 96 23 80.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Neskak garbiketa lanak egingo lituzke jatetxe batean. 639 936 841.

Umeak zainduko nituzke uztailetik irailera bitartean. 943 76 39 91.

Neska umeekin lan egiteko gertu. Esperientzia. 943 76 53 71.

Neska lanerako gertu udan. 943 76 00 24.

Neska gaztea, garbiketa lanak, umeak zaindu edo dendan lan egiteko gertu. 600 321 302.

Emakumea etxeko lanak egiteko gertu. 666 643 490 (Herminia).

**ESKAERAK**

Emakumea behar da umeak zaintzeko. 943 76 05 87.

Emakumea behar da edadetua zaintzeko, uz-

Pisua alokairuan udan Torreviejan. 943 76 35 26 / 43 77.

Benidormen. 943 76 63 21 / 74 06 28.

Laredon, hondartza ondoan. 943 79 52 80.

Pisua alokairuan Donibane Garazin asteburuetarako edo gehiago. 00 33 559 371 666.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua alokairuan hartuko genuke San Antonio-

Labegarieta inguruan. 943 76 18 73.

Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan Bergaran edo inguruan. Deitu 646 975 367 telefonora.

**ETXE KONPARTITUAK**

Logela alokatzen dut. 943 76 08 00 (Alberto. Bulego ordutegia).

Donostiako erdialdean pisu handia konpartituko nuke urte osoan. 670 087 427 (Ainhoa).

Pisua osatzeko neska behar da. Telefona: 943 76 55 26

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Ibargarai. 943 76 00 93.

Matxiategi. 943 76 23 12.

Bolu. 2.000.000 pta. 943 76 47 99 (gauzez).

Bolu. 2 plaza. Deitu 616 049 865 telefonora.

**ERRENTAN EMATEKO**

Garajea alokairuan Zubiaurren. 943 76 23 53.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

**3. LOKALAK**

**EROSI**

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m<sup>2</sup>. 607 82 53 06.

**JOXAN**  
**ARRAINDEGIÀ**



Ibargarai 24  
Tf. 943 76 70 29

**IONE TELLERIA**



PERTSONA ETA  
INGURUNEA  
pintura-erakusketa

**NAHIKARI** taberna  
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

Soraluzen  
**PINTURA ETA  
ESKULANETAKO**  
denda-akademia  
traspasoan

943 75 25 14  
609 455 241

**SUKALDERAKO  
ETA BARRARAKO**  
lagun bana  
behar dira

943 76 18 49

*Ganbara*  
**TABERNA**

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

**Sukaldeko  
GARBIKETAK**  
egiteko pertsona  
behar da jatetxe  
batean

943 76 59 19



tailerik urria; zapatu eta domeketan ere bai. 943 76 35 11.

Pertsona behar da umea zaintzeko Antzuolan. 943 76 64 24.

Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 08 25.

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAINTZAK**

LH eta DBHko 1. ziklorako klase partikularrak ematen ditut uztailan. 943 76 25 90.

Klase partikularrak ematen ditut uztailan. OHO eta DBH. 943 76 39 94.

Udan klase partikularrak ematen ditut: mate, fisika eta kimika. 943 76 59 15 (Amaia).

**ESKAERAK**

Pascal programako klaseak hartuko nituzke (injinerutza, 1. maila). 943 76 10 44.

Injinerutzako 2. mailako C programari buruzko klaseak hartuko nituzte. 943 78 09 66.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Opel Kadett (SS-AH). 943 76 02 88.

Aprilia RS 50 motoa. 943 76 48 47.

Trial motoa. 250. 125.000 km. 943 79 78 36.

Seat Panda oso merke. 656 743 272.

Mitsubishi Pajero motza. 1992. 110.000 km. 943 76 02 51.

Scooter motorra. Skipper 125. Matrikulatua. 943 76 61 05.

Opel Kadett (SS-AL). 667 209 279 (Iker. 18:30etik aurrera).

Ford Escort 16V familiarra (SS-BB). 943 79 91 27.

Kawasaki GPZ 400 FI motoa. 943 70 21 11.

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Caniche txakurkumeak. Arrak eta emeak. 943 76 57 16.

Behorra eta 2 moxal.

Deitu 943 76 29 67 telefonora.

Cooker ingeles txakurkumeak. Merke. Hilabete eta erdi. 636 877 574.

**BESTELAKOAK**

Bi urteko katu siamesa oparitzen dut nik ezin dudalako zaindu. 943 76 39 95.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Inesca Viena karrodenda, ia berria. 943 76 43 80.

Wip-it piragua. Osagarriekin (arraunak, txalekoa...). 150.000 pta. 943 79 78 36.

Bizikletan ibiltzeko rodilloa. 943 76 18 78.

San Marco bizikletako eserlekua. 5.000 pta.. 943 76 07 50.

Egongelako altzaria. Ia berria, 2,8 m. luze. 943 76 41 31.

Play Station: txipa, 3 aginte eta 3 joko. 943 76 47 82.

Karabana plegablea.

943 76 58 05 / 41 55 (gauze. Bibi).

Bi logelako kanpindenda. Oso berria. 943 74 05 37.

Lasterketetako bizikleta. Kadete maila. 20.000 pta. 943 76 07 87 (gauze).

**EROSI**

Bigarren eskuko ordenagailua erosiko nuke. 943 76 47 67.

Txanpon zaharrak erosi-ko nituzke. 639 822 790.

**GALDU**

Reebok motxila beigea galdu nuen Seminrioan ekainaren 23an. 943 76 44 95.


**AURKITU**

Gameboy bat topatu dut. 943 76 59 16.

Erlojua topatu dut. 943 76 46 55.

**BESTELAKOAK**

Txakurra edukitzeko txabola behar dut 607 448 531.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**INTERNET ZERBITZU BATERAKO LH II INFORMATIKA**  
Donostialdea. 34419/4

**IGELTSEROAK, 2**  
Bilbo. 34565/1

**INFORMATIKA TEKNIKARIA**  
Leioa. 34680/1

**JAVA IRAKASLEA**  
Bilbo. 34420/1

**ASEGURU AGENTEAK, 5**  
Bilbo. 34737/1

**LH II ELEKTRIZITATEA EDOTA ELEKTRONIKA**  
Zaratamo. 34491/2

**DELINEATZAILEA**  
Deba Garaia. 34337/4

**EKONOMIA EDOTA ENPRESA ZIENTZ. LIZENTZIATUA**  
Amorebieta. 34501/3

**INGLES IRAKASLEA**  
Arabar lautada. 34818/2

**ELEKTRIZISTAK, 15**  
Bilbo. 34545/1

**INGENIARI TEKNIKOAK**  
Arabar lautada. 32058/4

**UNTZIGINTZAKO INGENIARIA**  
Bilbo. 34550/2

**AISIALDIKO BEGIRALEAK, 50**  
Bidasoa behea. 31768/2

**INDUSTRI DELINEATZAILEA**  
Bilbo. 34557/4

**IDAZKARIA**  
Bilbo. 33355/3

**HOTZ INDUSTRIALAREN MANTENIMENDUA**  
Deba Garaia. 33459/2

**PINTOREA**  
Goierri. 33826/4


**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**  
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



**Etxebizitza berriak Antzuola erdian**

- 90 m<sup>2</sup>ko etxebizitzak, 3 logelakoak
- Leku ezin hobean
- Punta-puntako materialekin eraikiak
- **20 milioitan!**

Santi Kutz 8, behea. 20230 Legazpi. Tf. eta faxa: 943 73 05 25.



**Ur-bide**  
I T U R G I N T Z A

Zubieta 28, behea  
BERGARA  
943 76 00 57  
630 261 617

**ARDATZA**  
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behea  
☎ 943 76 18 93



**Sukaldeak.**  
**Horma armairuak.**  
**Neurrira egindako altzariak.**  
**Ateak eta leihoak.**  
**Arozlanak.**

**BERGARA ☎ 943 76 58 86**

## Jazz eta zine emanaldiak kalean udan

Uztailean jazz emanaldiak izango dira eta abuztuan zinea eguenero

**Udako gauei bizitasuna emateko asmoz, jazz eta zine emanaldiak antolatu ditu Udalak. Uztailean, Espoioian jazz kontzertuak izango dira, eta abuztuan zine emanaldiak San Martin plazan.**

Udako astegunetako gauak bizitzeko asmoz antolatu ditu Udalak ekitaldiok. Uztaileko hilabetean, eguenero jazz kontzertuak izango dira Espoioian gaueko 22:00etan. Lehenengoa, datorren eguenean, uztailek 6, izango da, eta bertan, "6 am" talde bergarra ikusi eta entzuteko aukera egongo da. Hurrengo eguenean, uztailek 13, "Tonkey Blues Band" hurbilduko da Espoioira. Uztailearen 20an "Hierbabuena" taldea eta jazz emanaldi zikloa "Amaraun" taldeak itxiko du uztailearen 27an.

Jazz emanaldiekin bat eginik, gai beraren inguruko pintura erakusketa egongo da Kultura Etxean. Bertan, Jose Mari Aleman Amundarain donostiarraren "Jazz-aren 30 izen nagusiak" erakutsiko ditu. Erakusketa uztailearen 7an irekiko da arratsaldeko 19:00etan. Auroak berak egongo du aurkezpena.



6 am taldeak irekiko du uztailearen 6an jazz emanaldien sorta.

### ZINEA SAN MARTIN PLAZAN

Uztaileko eguenak musikak alaituko baditu, abuztukoak zineak. Izan ere, abuztuko hilabetean zehar, eguenero film bat ikusteko aukera izango da San Martin plazan gaueko 22:30ean; ikusleendako aulkiak jarriko dira. Filmak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira.

Abuztuaren 3an "Asterix y Obelix" (gaztelaraz) eskainiko da. Abuztuaren 10ean "Errebelde baten egunkaria" (euskaraz); abuztuaren 17an "Manolito gafotas" (gaztelaraz); abuztuaren 24an "Charlie & Louise (euskaraz) eta abuztuaren 31n "Todo sobre mi madre" (gaztelaraz).

## Manu Muniategiandikoetxea Gure Artea 2000 erakusketarako aukeratu dute 213 artisten artean

**Muniategiandikoetxea** pintorea "Gure Artea 2000" erakusketan parte hartzeko aukeratu dute. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak antolatu ohi du erakusketa hau. Aurten 213 lagun aurkeztu dira, eta Muniategiren "Pale-

ak" lana aukeratu dute, beste 24 artistaren obrekina batera, aipatutako erakusketa antolatzeko. Erakusketa Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egongo da ikusgai urriaren 10etik aza-roaren 22ra arte.

Erakusketako lanen artean, "Gure Artea" sariak erabakiko dira: hiru dira eta bakoitza bi milioi pezetakoa. Bestalde, saritutako hiru lanekin erakusketa ibiltaria antolatuko da arte-gune garrantzitsuetan.



ZABAIK

# ETXEPARE-BILINTX



**LIBURUDENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

*Mujika*  
gorrologia



**Berezitasunak:**  
Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34

## “Udan ere zure lagun” liburu gomendagarrien zerrenda kalean

**Udal Liburutegiak** atera du dagoneko “Udan ere zure lagun”, liburu gomendagarrien zerrenda. Badira urte batzuk liburutegiak uda partean liburuak gomendatzen dituela. Liburu zerrenda honen helburua honakoa da: batetik, irakurketa bultzatzea, eta bestetik, liburutegiko fondoa ezagutzera ematea, bide batez, liburutegia bera ezagutzera emanez.

Ekimena uda partean egiteak badu bere arrazoia, izan ere, oporraldian jendeak denbora libre gehiago izaten du irakurtzeko.

### ADINAREN ARABERA

Liburu gomendagarrien zerrenda, adinaren arabera dago sailkatuta, eta euskarazko zein gaztelerazko liburuak



Adin guztiendako liburuak gomendatzen dira zerrendan.

daude: 0 urtetik aurrerakoentzat zazpi: “Animaliekin ikasi” bilduma, “Grimm anaien ipuinak”, eta “Goazen barrura” bilduma bezalakoak jasotzen dira zerrendan. 6 urtetik aurrerakoentzat beste zazpi: Juan Kruz Igerabideren “Jonas eta hozkailu beldurtia”, Montse Tobellaren “Kontaidazu ipuin bat”, eta Jo-xantonio Ormazabalen “Gorritxo eta Beltxiko” besteak beste. 8 urtetik aurrerakoentzat zortzi, hala nola: Fina Casallerreyren “Ilenti”, Jorge Aranguren “Ibaiko dama”, eta Luis Pescettiren “El pulpo está crudo”. 10 urtetik aurrerakoentzat zazpi: Anjel Lertxundiren “Nire kulerok”, Ricardo Gomezen “Bruno y la casa del espejo”, eta Xabier Diaz Esarteren “Mito mito eta kito!”, tartean.

Gazteei zuzendutako liburuak zortzi dira: Juan Luis Zabalaren “Harrirruko bihotz borrokak”, David S. Williamsen “Joko bikoitza”, edo Kate Canneren “El que nada no se ahoga” esaterako. Eta helduentzako hamabi: Julen Gabiriaren “Conemara gure bihotzean”, Lourdes Oñederraren “Eta emakumeari sugeak esan zion”, eta Sue Graftonen “O de odio”, beste batzuren artean.

### ORDUTEGI ALDAKETA

Liburuak hartzeko, gogoratu uztailaren 3tik aurrera udako ordutegiari ekingo diola liburutegiak. Ordutegia honakoa izango da: goizeko 8:00etatik 13:00etara, eta larunbatetan itxita egongo da. Horrez gain, uztailaren 5, 6 eta 7an ezingo da libururik hartu inbentarioa egin behar baitute. Bestalde, abuztuaren 4tik 28ra itxita egongo da oporregatik.


### erreseinak



Iñaki Petxarroman  
**Nafarroa:**  
**iragana eta geroa**  
Historikoa

Gaztelako Erresumak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia bereganatu eta Nafarroa itsas irteerarik gabe utzi zuen 1200. urtean. Urteurren baten aitzakian idatzitako kazetaritza lana da, beraz, liburu hau. Iñaki Petxarroman, Euskaldunon Egunkariako kazetaria da, eta gertaera historiko baten azterketa egiten du kazetaritzaren ildo jarraituz. Azken urteotan Nafarroako historia politikoak hartu duen norabide berria ulertzeko euskarazko lehen liburua da hau.

- Txalaparta. 172 orr. 1.800 pta.



Joselu Anaiak  
**Ibili Hadi**  
Plaza musika

Plaza talde ezaguna dugu Joselu Anaiak taldea. “Hator hi ere”, “Gau jaiak” eta “Lagarren dantza” diskoen ostean, laugarrena kaleratu berri du Araiaiko boskote honek. Aurrekoen ildoari jarraituz, festa eta dantzarako aproposak diren doinuak bildu dituzte hamabi abestitan. *Zatoz plazara*, diskoari izena ematen dion *Ibili hadi*, *Ene Maialen* edota *Dantza, dantza* bezalako kantak aurki daitezke laugarren agerpen honetan. Festa eta ospakizunetarako egiten den musika izanik, alai izateaz gain, gorputza martxan jartzeko aukerarik ere ematen du. Aurtengo apirila eta maiatza artean grabatu da diskoa Gasteizen.

- Elkarlanean. 2.100 pta.

*izeder*

ARTE DEKORATIBOKO  
ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

**Ezker eskuma**

1. Lizuna denaren nolakotasun.
2. Jausi. Huts.
3. Marratzuz egindako irudiak.
4. Beharbada. Zintzo.
5. Lehenengoa.
6. Zamorako ibilgailuetan. Bostehun.
7. Gizon izena.
8. Malko handia. Arazo hitzaren konsonanteak.
9. Bat. Jardun. Arrantzagunea.
10. Koitadu. Norat atzizkia.

**Goitik behera**

1. Lemariak.
  2. Igaro. Zoro.
  3. Zorte. Bikotea.
  4. Urratzearen ondorioa. Berrogeita hamar.
  5. Toka, nuen.
  6. Afrikako estatua.
  7. Tona. Azkenekoa. Bokal errepikatua.
  8. Ukatzeko.
  9. Geziak. Einsteinioa.
  10. Bakoitzari sei.
- Ez emea. 9. Oinarrizko edaria. Uhartedi.
10. Tratamendu-mota. Puska.

**Soluzioa**

- Ezker eskuma**
1. Lizuntasun.
  2. Eroli. Zeru.
  3. Marratzak.
  4. Aglian. On. A.
  5. Za. D. Unai.
  6. Anpuluak.
  7. R. Art. Kala.
  8. Nerabe.
  9. Rat.
  10. Koala. Sata.
- Goitik behera**
1. Lemazainak.
  2. Iragan. Ero.
  3. Zori. Parea.
  4. Urradura. L.
  5. Nian. Libia.
  6. T. Z. Uu. Ez.
  7. Azkonak. Es.
  8. Seina. Arta.
  9. Ura. Ihadi.
  10. Noka. Zafia.

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

**Zein artelan egin zuen 1622an Juan de Mesa eskultore kordobarrak San Pedro elizarako?**

galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauet erantzuten diezun!**

1. Uda kanpainaren barruan, zein ari da defentsa pertsonaleko ikastaroa ematen?
  - A- Iñaki Ugarteburu
  - B- Juan Kruz Azkarate
  - C- Joxean Iñarra
2. Non eskuratu zuten Makik eta Francok Eibarrekin 2.B mailarako igoera?
  - A- Nojan
  - B- Huescan
  - C- Mirandan
3. Zein taldek irekiko du uztailako jazz emanaldi sorta?
  - A- 6 am
  - B- Hierbabuena
  - C- Chick Corea



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Ibon Berraondo**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Iboni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Hormigoia** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

**BONOFOTOA**

---

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Kopie Sabor**  
oliba olio, 1º, litroa  
**369 PTA!**

Super BMen beti eskaintzarik onenak!

**Juan Kruz Azkarate duela 56 urte jaixu zan Goi auzoko Errota-goikua basarrixan. Orain dala 14 urtetik San Martzialeko prozesioko gurutzea eroaten dau, eta letanixia atera aurretik kanpaiak jotzeaz be arduratzen da.**

## Juan Kruz Azkarate

**Zenbat urte daroiazu prozesiñoan gurutzea eroaten?**

Hamalau bat urte. Lehenengo Santa Marinan kanpaia jo eta San Martzialera.

**Ze esanahi dauka prozesiño honek?**

Soruak bedekatzeko-edo egitten da.

**Domekako erromerixara juaten zara?**

Bai, lehenengo mezia entzun eta han pasatzen dogu goiza.

**Zeuk prepatzen dozue bazkarixa ala enkargau egitten dozue?**

Bazkaltzera etxera bueltatzen naiz.

**Gaztetan juango ziñan, baiña.**

Bai, umetatik juan izan naiz. Argazki bat be badaukat lau urte neuzkanekua San Martzialen gurasuekin.

**San Martzialetan asko ligatzen dala esaten dabe...**

Beno, guk sasoi batean ahalegiñak egitten giñuzen.

**Han dana libre zala esaten dabe.**

Dana ez dakitt, baiña San Martzialen mozkortzia behintzat ez da pekatu.

**Zeuk han ligau ziñuan zeure andriarekin?**

Ez, San Martzialen ez, kalian ezagutu neban andria.

**Aurtengo udarako planik?**

Astudillora juango gara, andrian herrira.

**Aukeran, hondartza ala mendia?**

Mendixa, hondartza ondo dago pixkat egoteko, baiña ez jat eguzkixa hartzerik gustatzen.

**Musika talde edo abeslari bat?**

Benito Lertxundi.

**Irakurri dozun azken liburua?**

Ez dakitt; ez daukat irakurtzeko afiziñorik.

**Ze afiziño daukazu?**

Mendixa eta futbola.

**Euskal Herriko mendirik polittena?**

Uff!, asko dare: Udalaitz, Anboto...

**Futbolian, jokalaririk gustokuena?**

Alberto, atezaiña, neu be atezaiña izandakua naiz-eta.

**Zela definittuko ziñuke zeure burua?**

Nerbioso samarra naiz, baiña baketsua.

**Tourrerako apostuak egitten hasitta dago jendia. Zeiñen alde egitten dozu?**

Olanok irabaztia gustatuko litzatake.

**Zerekin hasiko ziñake pozez saltoka?**

Osasun arazorik sekula ez izatearekin.

**Eta zerk jartzen zaittu sutan?**

Laneko kontuek.

**Zure bizitzako egunik onena?**

Igual ezkondu nintzan eguna.

**Eta txarrena?**


Ba ez dakitt.

**Boteilia erdi beteta ala erdi hutsik ikusten dozu?**

Bai, boteilia erdi beteta ikusten dot beti.

**Bukatzeo, amets bat?**


Euskal Herrixan bakia lortzia.



**POL-POL**

**Taberna**

☎ 943 76 07 78



**Kantu ikastaroa**

Mikel Markezzen eskutik

20 ORDUKO IKASTAROA. Denon artean erabakiko dugu ordutegia

3.000 PTA BAZKIDEEK

3.500 PTA GAINERAKOEK

Ikastaroaren bukaeran Kantu Liburutxo bat argitaratzeko asmoa daukagu.



Informazioa eta izena ematea: 943 76 36 61 / 08 19



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.  
Tf. 943 76 71 19

**IRURAK PINTURAK S.L.**

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32

**ezpeleta**

**Ostalaritzarako ehungintza**

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09



## San Martzialetan

Aste honetan 1960ko hamarkadan San Martzialen ateratako hiru argazki dakartzkizuegu.

**Ezkerreko argazkia** 1964koa da eta bertan, Bergarako familia bat ageri da, mahai baten bueltan, San Martzialgo zelaietan. Argazkian agertzen direnak hauek dira, ezkerretik eskumara:

Goian: Jose Madariaga, Migel Delgado, Julian Zumelaga, Jose Luis Durana eta Alfredo Durana (umea).

Beherago: Dominica Arza, Visitacion Arza, Mikel Durana, Nati Ilarduia, Paki Ilarduia eta Jasone Zumelaga (umea).

Bigarren ilaran: Francisco Ilarduia, Nerea Madariaga (umea) eta Juani Ilarduia.

Aurrean: Teresa Larrañaga, Patxi Madariaga, Koldo Durana, Pedro Zumelaga eta Itsaso Zumelaga.

**Eskumako argazkian, goian**, Mari Justa Idarraga ikus dezakezue. Uberako Idarraga Azpikoa baserrikoa, Mari Justak (Pedro Jose Asarloaren alarguna) urtero San Martzialetara igotzeko ohitura zeukan, beltzez jantzita, guardasolarekin eta bastoiarekin eta beti irripartsu. Argazkia 1968koa da.

**Hirugarren argazkian** (1968 ingurukoa) Montoya "karameleroa" eta Simon Arrieta pintorea, erroskillak erosten, agertzen dira.

*Argazkiak: Amaia Iztueta eta Jose Arrieta*

**AGOITZ**  
**Tapizdenda**

Leizariako San Lorentzo 25  
BERGARA  
Tf.: 939 84 57 47



**umelaga**

JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Udan  
**murgildu**  
 film berrietan!



**IRALA**  
 Bideoak

VIDEOMATIC Plus



**Adi! Uztailean...**

Zure txartela berrez kargatu eta...  
 3.000 pezetarekin . . . . . 1.000 pezeta doan  
 5.000 pezetarekin . . . . . 3.000 pezeta doan  
 10.000 pezetarekin . . . . . 5.000 pezeta doan

Eta, gainera, bezero **BERRIOI**  
**TXARTELA DOAN** egingo dizuegu!

Kruz Gallastegi 7. Telefonoa: 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33. E-maila: video\_irla@jet.es

ILE-APAINDEGIA  
 SOLARIUM

**ADATS**

Era guztietako makilajeak  
 Solariuma, 10 saioko bonoa + 1 doan: 5.000 pezeta  
 Ilerako tratamendu bereziak  
 Lan tekniko berri eta modernoak



Zabaldu berria

Matxiategi 7 · lehen Floren zegoen lekuan · 943 76 49 51

# ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



LEGE SIKUA HASTEN DA

NISSAN *Almera* BERRIA 2.2 Di 16 v / 110 cv-ko MOTORRA. 1000 Km BAINO GEHIAGO DEPOSITUA BETE GABE.

Nissan-en, gutxiak lortu dutena lortu dugu: berrikuntzan eta teknologian urrutira heltzea bere mailako motor lehiakor eta berritzailearekin. Injekzio zuzeneko turbodiesel motor berri bat, 110 cv-ko 16 balbula eta 230 mkg-tik 2000 rpm-rainoko motor parea. Bere klaseko altuena. Askok horrelako motor batekin non geldituko garen galdetuko duzue. Bada, zehatzak izateko, 1.053 kilometrotan, ze azken belaunaldiko motor indartsu bat izateaz gain, Nissan Almera berriak berdindu ezin den autonomia duelako.

Nissan Almera berria oso-oso urrutira eraman dugu, zu atzean ez gelditzeko.

IBILBIDEAZ GOZATU.



5

URTEKO  
BERMEA  
KM MUGARIK GABE

MOTOR 1.5  
COMFORT 3 ate  
1.935.000PTA\*

MOTOR 1.8  
COMFORT 5 ate  
2.360.000PTA\*

MOTOR 2.2 Di  
COMFORT 3 ate  
2.320.000PTA\*

MOTOR 2.2 Di  
COMFORT 5 ate  
2.365.000PTA\*

GIDATU ETA GOZATU